



## **Arartekoaren ebazpena, 2011ko irailaren 21ekoa, udal aurrekontuen izapidetzean eta edukian legea betetzeari buruzkoa.**

### Aurrekariak

1. (...) jaunak erakunde honetara jo zuen Bakioko Udalak, 2009, 2010 eta 2011ko ekitaldietako udal aurrekontuei aurkeztu alegazio idazkiei dagokienez, izandako jarreragatik kexa bat aurkezteko xedez. Pertsona horren iritziz ez zegoen batere begirunerik udalak, zenbait izapidetan aurkeztutako alegazioen aurrean, ez zuelako ezer argudiatu; haren esanetan, horrek herri-administrazio baten eta zerbitzua ematen dion biztanleriaren arteko harremanak gauzatu beharreko baldintzak ez betetzea dakar. Azken batean, udalaren funtzionamendu okerra salatu zuen.

Laburbilduta, interesatuak honela agertu zuen bere kexa:

- Aurrekontuei jarritako alegazio idazkiak aintzat hartzeko zailtasunak, zenbait argudio erabilia, hala nola epeak ez betetzea, kausaduna edota auzokoa ez izatea.
  - Dantza taldearen entsegu lokalei buruzko eskaerei eta aurrekontuentzako alegazio epean aurkeztutako idazkietako gainerako eskaera zehatzei erantzunik ez ematea.
  - Alegazioak sistematikoki ezestea arrazoirik gabe eta are idazkari-ikuskatzaileak haren arrazoibideei aldeko txostenak egin arren, baina ukatzeko zioak argudiatu gabe.
2. Kexa onartuta, Bakioko Udalari agertutako gaia aztertzeko behar ziren argibideak eta agiriak eskatu genizkion, zehazki, erreklamaziogileak, ondorio gisa, 2011ko udal aurrekontuari agertu zizkion kontuei buruz:
    - Ez da egia kredituek gastuak eta 2009ko diruzaintza soberakin negatiboaren kopuru bereko hasierako superabita estaltzen dituztela (Ekonomia eta finantza txostena).
    - Esleitutako diru-sarrerek ez dute bermatzen gastuak eta 2009ko diruzaintza soberakin negatiboaren kopuru bereko hasierako superabita estaltzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Aginduak xedatzen duenez (Esku-hartze txostena).
    - 1463/2007 Errege Dekretuan xedatutako aurrekontu egonkortasuneko helburua ez da betetzen (aurrekontu egonkortasuneko helburua ez betetzeari buruzko txostena).

Udalak eskatutako agiriak igorri zizkigun (funtsean idazkari-ikuskatzailearen zenbait txosten), baina ez zien erantzun kexak agertutako kontuei, haiei buruzko argibideak emateko eskatu genion arren.





Kexaren zioak aztertu eta baloratu ditugu. Horretarako 2011ko ekitaldiko aurrekontuari, administrazioaren jarduketari eta kasuari buruzko dokumentazio zabalari helduz, epaitzeko ditugun irizpideen eta ordenamendu juridikoaren arabera.

### Oharbideak

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak (TKAFA) udal aurrekontuen edukia eta prozedura arautzen ditu. Foru arau horrek aurrekontu, kontabilitate eta kontroleko esparrua xedatzen du eta hari lotu behar zaizkio tokiko erakundeak, jarduera ekonomiko bizkor eta eraginkorraren premien arabera. Interesatuak udal aurrekontuaren aurka egindako alegazioen eduki substantiboan sartu aurretik, prozedurari eta, zehazki, interesatuaren kontzeptuari eta aurrekontu kontuetan erreklama daitezkeen kasu tasatuei buruz hitz egin behar dugu.

Horrela, TEAFako 15.1. artikulua honakoa xedatzen du: *"Aurrekontu orokorra hasieran onetsita, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren jendaurrera azalduko da hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote."*

Bestalde, TEAFako 17.1 artikulua interesatuak zein diren mugatzen du, xedatzen baitu, 15. artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoaren ondoretarako, honakoak izango direla interesatuak:

- a) Dagokion erakundearen lurraldean bizi direnak.
- b) Eragin zuzena jasotzen dutenak, erakundearen lurraldean bizi ez arren.
- c) Elkargo ofizialak, ganbara ofizial, sindikatuak, elkarteak eta lanbide, ekonomia eta auzoko interesen alde egiteko legalki eraikitako gainerako erakundeak, eurenak direnen defentsan dihardutenean.

Azkenik, TEAFako 17.2 artikulua kasu tasatu batzuk xedatzen ditu aurrekontuen aurkako alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko, xedatzen baitu honako kasuetan baino ezingo direla aurrekontuaren aurkako erreklamazioak jarritz:

- a) Haren prestaketa eta onarpena arau honetan xedatutako izapideei lotu ez izanagatik.
- b) Erakundeari eska dakizkiokeen betebeharrak betetzeko behar den kreditua ez sartzeagatik, legezko manuaren edo legezko beste edozein tituluren arabera.
- c) Aurrekontuko gastuen aldean diru-sarrerak argiro nahikoak ez izateagatik, edo lehenak aurreikusita dauden premietarako nahikoak ez izateagatik.





Beraz, gai hau arautzen duen berariazko araudiak xedatzen du nortzuk diren interesatuak eta aurrekontuan jendaurrean erakusteko epean alegazioak aurkez daitezkeen kasu tasatuak ere bai. Horren ondorioz, forma kontuak (legezkotasuna, epean aurkeztea, etab.) baloratu behar dira aurkeztutako alegazioen muinean sartu aurretik.

Interesatuak direnei dagokienez, aurrekontu arauak darabilen bizilagun kontzeptua toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko terminologiara birbideratu behar da. Horrela, 15. artikulua xedatzen duenez, udal erroldan (biztanleria) erregistratutako pertsonak udaleko biztanleria osatzen dute eta erroldan erregistratutakoak udaleko auzokoak dira. Bestalde, Lege horretako 16. artikulua adierazten duenez, errolda udaleko auzokoak jasotzen dituen administrazioa erregistroa da, eta hango datuek udalean bitztea frogatzen dute. Horren ondorioz, udal eremuan eskubide eta betebeharren subjektu gisa (18. artikulua), udalean ohiko bizilekua izan eta udal erroldan erregistratuta dagoen pertsona oro da auzokoa. Ondorioz, udalean erroldatuta ez dagoen pertsona ez da auzokoa eta ez da udaleko biztanlea eta, beraz, ez da interesatua udal aurrekontuaren aurkako alegazioak aurkezteko.

Laburbilduz, aurrekontuaren aurka erreklamatzeko zilegitasuna arauak interesatu gaitzen dituenek baino ez dute; kontu hori alde aurretik aztertu behar da beti, erreklamaziorik baten zilegitasunik eza ondorioztatuz gero, hark izan behar duelako ezesteko zioa, agertutako alegazioen muinean sartu barik. Zentzu berean, erreklamazioa ezesteko zioa epe kanpo aurkeztea bada ere ez da agertutako kontuaren muinean sartu behar.

Aldez aurretik, aurkeztutako erreklamazioa edo alegazioak 17.2 artikuluan, TEAFako 17.1 artikuluari dagokionez, tasatuta jasotzen diren kasuetako bati egokitzen zaion aztertu behar da. Horrela, udaleko auzoko (biztanle) batek agertutako edozein kasuren aurka erreklamatu ahalko du; aitzitik, interesatuak, zuzenean eragindakoa izateagatik, bertan bizi ez arren, zuzenean eragiten dioten kontuengatik baino ez du erreklamatzeko zilegitasunik izango (adibidez, hornitzailea sinatutako kontratuaren arabera aurrekontu sail nahikorik ezaren aurka). Beraz, zerbitzuak hornitzeari edo laguntza ekonomikoak zabaltzeari buruzko eskaerak ezin dira agertu aurrekontua onartzeko prozedura, hornikuntza nahikorik ez duten derrigorrezko zerbitzuak izan edo formalki agindutako konpromisoetan oinarrituta egon ezean.

Bukatzeko, esan behar da interesatuak direnek jendaurrean erakutsitako aurrekontu espedientea aztertu eta udalbatzaren aurrean erreklamazioak aurkeztu ahalko dituztela, 15 eguneko epean dagokion aldizkari ofizialean iragartzen denetik. Interesatuak diren aldetik, izapidetzen ari den espedientearen dauden agirien kopiak lortzeko eskubidea<sup>1</sup>. Edonola ere, eskatutako

---

<sup>1</sup> Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35 a) artikulua.



bolumenaren arabera, eskatutako kopiak arrazoizko epean ematea kaltetu gabe, alegazioak aurkezteko epea errespetatu behar da, baldin espedientea interesa duten pertsonen eskura adierazitako epean egoteko xedapena bete bada.

2. Espedientea 2010eko abenduaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez erakutsi zen jendaurrean, eta erreklamaziogilearen alegazioak 2011ko urtarrilaren 10ean aurkeztu ziren, horretarako xedatutako epetik kanpo, alegia. Bestalde, eskuragarri dagoen informazioaren arabera, erreklamazioa ez zen interesatua, ez baitzen udaleko auzokoa.

2011ko ekitaldirako aurrekontu orokorra behin betiko onartu zuen 2011ko urtarrilaren 28ko erabateko erabakiak, azalpenetan adierazi zuen erreklamaziogileak aurkeztutako alegazioa iritzia baino ez dela eta epez kanpo aurkeztu dela. Halaber, adierazi zuen udal idazkariaren aurkeztutako alegazioei buruzko txostenean jasota dagoela. Txosten hori erreklamaziogileak agertutako sakoneko kontuei buruzkoa da, arestiko atalean aztertu ditugun forma kontuak aipatu gabe.

Erabakiaren zati erabakitzailean, ordea, adierazi zen interesatuak aurkeztutako alegazioak ezetsi zirela, kultura eta kirol taldeen sailari buruzkoa izan ezik. Hortik ondorioztatzen da, alegazioak epez kanpo aurkeztu zirela adierazi arren, gaiaren muinari buruz ebatzi zela, aurrekontu egonkortasuneko helburua ez betetzeari eta kredituek gastuak eta 2009ko diruzaintza soberakin negatiboaren kopuru bereko hasierako superabita benetan ez betetzeari buruzko alegazio guztiak ezetsi arren, udalbatzak ulertu baitzuen haiei buruzko alegazioak iritzi hutsa zirela.

Interesatuak erabakia eta idazkariaren txostena jaso zituen. Txosten horren arabera, erreklamaziogilearen adierazpenak errealitate objektiboan oinarritutako iritziak ziren, udal kontabilitatearen egoeratik ondorioztatuak, baina udalak adostutako aurrekontu politikari lotzen zaio (2011ko urtarrilaren 11ko txostena, 2010eko abenduaren 17ko txostenari buruzkoa). Horri dagokionez, erreklamaziogileak ulertu du udalak ez duela alegazioen ezestea argudiatu, are gehiago idazkari-ikuskatzailearen txostenek bere arrazoibidea baiesten dutenean.

Izan ere, idazkari-ikuskatzaileak espediente horri buruzko zenbait txosten eman zituen:

- 2011ko aurrekontu orokorraren ekonomia eta finantza txostena, 2010eko azaroaren 19koa; bertan adierazi zuen, bere irizpide teknikoaren arabera eta azaltzen dituen zioengatik, 61. kapituluan (Inbertsio errealak besterentzea) sartutako zenbatekoek ez zuten TEAFAko 7. artikulua betetzen eta, beraz, adierazi zuen berak ikuskatutako aurrekontu proiektuan kredituek ez





- dituztela gastuak eta 2009ko diruzaintza soberakin negatiboaren kopuru bereko hasierako superabita benetan estaltzen.
- Zentzu berean, azaroaren 22ko txostenak adierazi zuenez, aurrekontu orokorrak, gastuen egoeran 8.172.821,45 euroko guztizko zenbateko irmoa eta, sarreraren egoeran, 11.300.050,20koa, 3.127.228,75 euroko superabita izanda, osorik estaliko luke 2009ko diruzaintza soberakin negatiboa. Txosten horrek arestian aipatutakoa berretsi zuen.
  - 2010eko abenduaren 17ko txostena, azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuaren arabera, aurrekontu egonkortasuneko helburua ez betetzeari buruzkoa. Txostenak adierazi zuenez, proposatutako ekonomia eta finantza planean, ekonomia eta finantza orekara 2013an itzuliko litzateke, hasiera batean 2011eako aurreikusita egon arren. Horrela autonomia egoerara itzultzeko epea ez da betetzen. Egoera hori operazio korranteengatik likidatutako baliabideen %110etik beherako aurrezki garbi positiboko zenbatekoak eta zor biziko saldoak bermatzen dute.

Txosten teknikoak ezin dira iritzi hustzat hartu, aholkularitza juridikoko eta esku-hartzeko derrigorrezko eginkizunak betetzen dituen profesional batek egin baititu. Hala ere, udalbatzak behin betiko onartu zuen aurrekontu orokorra, derrigorrez bete behar den adierazitako aurrekontu araudia betetzeko, aurrekontu ekitaldian likidatu beharreko sarreraren aurreikuspenak beteko direla uste izateko zioak arrazoitu eta argudiatu gabe. Horri dagokionez, idazkari-ikuskatzaileak adierazi zuen, hirigintza ustiapenagatik bi milioi baino gehiago kobratzeko aurreikuspenari buruz, ez zegoela kontzeptu horiek eta zenbateko horiengatik likidatzeko ziurtasunik; bere arrazoibidea honela argudiatu zuen: *“no existe convenio alguno aprobado al respecto y de aprobarse a lo largo de 2011 no se darían los hitos necesarios para poder dar lugar al reconocimiento de los derechos por la totalidad de los importes consignados.”*

Laburbilduta, idazkari-ikuskatzailearen derrigorrezko txostena udalbatzarentzat loteslea ez bada ere<sup>2</sup>, erakunde horrek udalaren aurrekontu orokorra behin betiko onartzeko erabakia arrazoitu behar zuen, are gehiago, txosten teknikoa negatiboa izan zenean, eta aurrekontu araua eta aurrekontu egonkortasunari dagokiona bete izana zuritu behar zuen, 2008tik ekarritako defizita kontuan izanda.

Kexa jarri zuenaren erreklamazioaren helburua eta arestiko ataletan azaldutako oharbideak ikusita, honako ondorioak helarazi behar dizkizugu:

---

<sup>2</sup> Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 83.1 artikulua.



## Ondorioak

1. Bakioko Udalak emandako agiriak eta indarreko legedia aztertuta ondorioztatu behar dugu administrazio horrek labur eta argudiatuta arrazoitze behar dituela bere erabakiak, are gehiago erabaki horiek dagozkien derrigorrezko txostenetatik aldentzen direnean.
2. Espediente batean interesa dutenek, halakoak direla frogatu ondoren, eskubidea dute agertutako alegazioei buruzko ebazpenak behar bezala arrazoituta jasotzeko, administrazioaren jarduketa oro zuzendu behar duen gardentasun printzipioari jarraituz.
3. Halaber, aurkeztutako alegazioak forma kontuengatik ezesteak nahikoa arrazoitzea eskatzen du, interesatuak ezesteko arrazoiak frogatuta ezagut ditzan.
4. Herri-administrazioek zorrozki bete behar dute indarreko legedia eta, bereziki, kasu honi dagokionez, ekonomia jarduera bizkor eta eraginkorraren arabera, aurrekontuen edukia zuzentzen duten printzipioak eta betekizunak.

